

JOLASTOKIAREN BEHAKETA

“Hezkuntza eta gizarte orientazioa”

III. modulua



MIMAU TALDEA:
Aira Calero, Ainhoa
Beitia Letamendi, Unai
Txintxurreta Maiztegi, Maddi
Usandizaga Altube, Mainer

AURKIBIDEA:

1. Sarrera	2
2. Jolastokiaren behaketa: dimentsioak eta azpiegiturak	3
3. Jolastokiaren analisia	3
a. Beheko jolastokia	4
b. Atzeko jolastokia	5
c. Goiko jolastokia	8
4. Elkarriketa hezkuntza komunitateko kide bati	9
5. Hezitzaileen jarrera ezagutzeko galdetegia	10
6. Jolastokian hezkidetzaren bultzatzeko proposamena	12
a. Jolastoki berriari ezarri dizkiogun helburuak	14
b. Jolastoki berriaren deskribapena	15
7. Ebaluazioa	18
8. Bibliografia	20

1. SARRERA

Lan hau burutzen hasi aurretik, garrantzitsua iruditzen zaigu, lehenik eta behin, kontzeptu batzuk argitzea, gaia testuinguruan kokatuz. Horretarako Oinherrik sortutako “Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feminista batetik” liburuxkara jo dugu. Bertan, patriarkatuak haurrengan duen eragina aipatzen hasten da; egileen aburuz, patriarkatua homogeneizatzen eta zapaltzen duen jendarte eredua da. Hala, Bizkaiko Urtxintxa Eskolako kideek adierazten dute, patriarkatua sexu bereizketan eta gizonen nagusitasunean oinarritzen den jendarte-egitura dela. Egitura horretan, jendartean “neskak” eta “mutilak” bereizten dira eta sailkapen horrekin batera inposaturiko rol, estereotipo, lan, jarrera eta balio batzuk egokitzen zaizkigu. Honekin, emakume eta gizonen arteko desoreka arlo guztietara zabaltzen da, baita hezkuntzara ere (Bizkaiko Urtxintxa Eskola, 2015).

Liburuxkak aipatzen duen bezala, hezkuntza patriarkatua hedatzeko, erreproduzitzeko tresna edo baliabide bat izan da eta gaur egun ere izaten jarraitzen du. Urteak igaro arren ikasgela mistoak sortu zirenetik, oraindik ere, bereizketak egiten dira. Txikitatik, neska eta mutilei ezberdin hezten gaituzte eta horrek, etorkizunean ere eraginak dauzka. Horrela, patriarkatuaren balioak zabaltzen dira.

Gaur egun, modu ezberdinetako adibideak jarriz berdintasun batera heldu garela sinestarazi nahi duguten arren, oraindik ere boterea noren eskuetan dagoen ikustea besterik ez dago. Izan ere, gure eskoletako patioetan oraindik ere erabilera sexista egiten da. Liburuxkako egileek horrela aipatzen dute: mutilak eta futbola erdigunean jarriz eta neskak beste “edozein jolasetan” bazterrean utziz .

Kontu guzti honetan, hezitzaileok dugun papera eta hartzen dugun jarrerak ezinbesteko garrantzia duela uste dugu, baina, oraingo honetan, horretan zentratu beharrean haurrengan jarriko dugu arreta. Hauek behatzera joko dugu, ondoren, hobetze proposamenak egin ahal izateko.

Begi bistakoa da, gaur egungo gizartean, hezitzaileok dugun jarrera neska eta mutilekin ezberdina dela. Honen aurrean, berriz, jada urte batzuk sortu zen kontzeptua dugu hezkidetzak. Baina, zer da hezkidetzak? Hezkidetzak, pertsona bakoitzaren garapenean, sozializazio prozesuan, genero estereotipoak alde batera uztea esan nahi du. Horretarako, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan hezkidetzarako alternatibak diseinatu behar dira, arlo desberdinetako eduki guztietan garatzeko. Honen helburua pertsonak heztea da, kulturalki izendatzen zaien generoa alde batera utzirik (Bilbao, 2006).

Kontzeptualizazioa alde batera utzirik, burutu behar dugun lanean zentratuko gara. Behaketa lan bat egin behar dugu eta horretarako, eskola bateko jolastokia behatuko dugu. Ikastetxe honetan, behaketa egiterako orduan 3 jolastoki ezberdin ditugu; goikoak 3 futbol zelai ditu

eta 5-6.mailako ikasleak egoten dira bertan. Beheko jolastokiak aldiz, futbol zelai bakarra du eta 1-2.mailakoei zuzendurik dago. Azkenik, atzeko jolastokia aurkitzen da, non futbol zelairik ez duen. Eskola honetako hiru jolastokietara jo dugu eta jolastorduan bertako lehen hezkuntzako ikasleen jarrerak behatu ditugu. Behaketa orduan bi momentu ezberdin bereizi ditugu, batetik, baloi egunak eta bestetik, baloirik gabeko egunak.

Behaketa hau egiteko, lehenik eta behin, gure helburua jolastorduan hezkidetzat bultzatzea dela esan behar dugu, baina horretarako, bertako egoera zein den jakin behar dugu lehendabizi. Behaketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin eta egingo dugun lanean ahalik eta informazio gehien lortze aldera, behaketa taula bat egitea pentsatu dugu. Modu honek, behaketa egiterako orduan, denbora gutxienean ahalik eta datu gehien eskuratzeko bidea ematen digu.

2. JOLASTOKIAREN BEHAKETA: DIMENTSIOAK ETA AZPIEGITURAK

Behaketa taula egiteko erabili ditugun dimentsio ezberdinak honako hauek dira:

- Sexua: neska, mutila edo mistoa.
- Maila: 1. mailatik 6.mailara, 4. maila izan ezik.
- Eremua (non kokatzen dira?): erdialdea, izkinak edo jolastoki guztian zehar.
- Okupazioaren tamaina: txikia, handia edo ertaina.
- Zertan jolasten dute: futbola, saskibaloia, sokasaltoa, ezertan ez, esku-jolasak, jolas sinbolikoak edo beste zerbait.
- Materiala: baloia, soka, klariona edo frisbee-ak.
- Jarrerak: lasaia, agresiboa edo geldigorra
- Talde-harremana: sexuen artean harremantzen dira?, adin ezberdinekoekin harremantzen dira? edo irakasleekin harremantzen dira? bezalako galderak.
- Aniztasunaren trataera: etorkinekin harremantzen dira?.
- Neska- mutil harremana: berdinen artekoa, biolentoa, harroputza edo deserosoa.
- Hizkuntza: euskara, gaztelera edo beste bat.
- Irakaslearen papera: parte-hartzailea, pasiboa edo behatzailea.
- Ahots tonua: altua, baxua edo ertaina.
- Mugikortasuna: aktiboa, geldoa edo tartekoa.

3. JOLASTOKIEN ANALISIA:

Hiru jolastokiaren analisia egiteko, 3 atal bereizi ditugu. Izan ere, jolastokia bera ere 3 eremutan dago banatuta eta eremu bakoitzean adin tarte jakin bat egoten da. Hala, beheko jolastokian 1-2. mailako ikasleak egoten dira, atzeko jolastokian 3. mailakoak eta goiko jolastokian 5-6. mailakoak. Eremu bakoitzaren analisia egin aurretik, espazioaren diseinua

azaldu dugu, berau nolakoa den hobeto ezagutzeko. Horretaz gain, esan beharra dago, espazio beraren bi analisi egin ditugula, bat baloi egunekoa eta bestea baloi gabeko egunekoa. Beste hiru dimentsioak batera aztertu

1.BEHEKO JOLASTOKIA: 1/2 MAILAK

ESPAZIOAREN DISEINUA:

Lehenengo eta bigarren mailak, beheko jolastokian igarotzen dute jolastordua. Jolastoki hau ez da oso handia eta soilik futbol zelai bat du, ez du beste inongo ekipamendurik. Horretaz gain, futbol zelaiak ia espazio osoa hartzen du eta ez da tarte handirik gelditzen beste ekintza batzuetarako. Beraz baloia dagoen egunetan futboleko jolasteko erabilia izaten da eta beste egunetan soilik egiten dira ekintza ezberdinak, espazioaren diseinuaren ondorioz. Inguruetan ez dago esertzeko lekurik, beraz lurrean esertzen dira jolastu nahi ez dutenak.

ESPAZIOAREN ERABILERA NEURTUA, NESKA MUTIL HARREMANAK eta IKASLEEN JARRERAK EZAGUTZEA

Baloi eguna:

Espazioaren erabilerari dagokionez, behaketaren bitartez ikusi dugu 3 talde ezberdin ezberditen direla baloi egunetan, **lehenengo taldea** neskek soilik dira eta jolastokiaren izkinan kokatzen dira, beraien okupazioaren tamaina txikia dela esan dezakegu. Mutilekin futboleko jokatzeko aukerarik ez izatearen ondorioz, izkina batean esertzen dira eta bertan solasean ematen dute jolastordua. Ez dira beste adinekoekin nahasten, hauek lehenengo mailakoak dira, eta beraien baitan dihar dute, hots, irakaslearekin ere ez dira harremantzen. Beraien arteko jarrera deserosoa dela esan dezakegu, suposatu dezakegu, beraien benetako gogoak jolastea delako eta ez solasean egotea, nabarmenki ikus dezakegu ahots tonuetan nola altua ez den baina, deserotasun horrek bultzatuta batzuetan tonu igoerak egoten direla. Beraien artean euskara erabiltzen dute, guztiak dira euskaldunak eta ez dira etorkinekin nahasten. Beste alde batetik irakaslearen jarrera guztiz pasiboa da eta ez du jaramonik egiten egoera honi.

Beste talde bat bereizi dezakegu, kasu honetan, lehen ez bezala, neska eta mutilak batera ibiltzen dira jolastorduan. 3. taldeak futbol zelai osoa hartzen duenez, talde hau ere izkina baten mantentzen da, beraz eremu txiki bat hartzen dute. 2. talde hau sokasaltoan aritzen da, baina hauek ere ez dira beste adin batzuekin harremantzen, ezta irakaslearekin ere. Talde honetan, nabarmenezkoa da etorkinak ere badaudela, baina bertan euskaraz hitz egiteko ohitura galdu da hein batean nahiz eta oraindik ere euskaraz hitz egin, etorkinekin espainolez hitz egiteko ohitura hartu duten, tonu egoki bat erabiltzen dute eta nahiko aktiboki mugitzen dira jolastoki osoan zehar. Irakaslearen paperari dagokionez, behatzailea dela ikusi dugu.

Azkenik **3. taldea** dugu, futbol zelai osoa erabiltzen dutenak, espazio osoa futboleko jolasteko erabiltzen dute eta hein handi baten mutilak dira, noizean behin neska bat atxikitzen zaie beraiekin jolasteko, baina gutxitan. Beraien jarrera askotan agresiboa izatera heldu daiteke eta tentsio uneak ikus ditzakegu, adin ezberdinekoen artea, bertan 1 eta 2. mailakoa batera jolasten baitute. Neska mutil harremana berdinen artekoa izaten da neska batek jolasten duenean eta guztien artean euskaraz hitz egiten dute, gehienetan beraien ahots tonua

altua izanik, esan bezala konotazio agresiboekin. Hala eta guztiz ere, irakaslearen jarrerak pasiboa izaten jarraitzen du. Konpondu beharreko zerbait.

Baloirik gabeko eguna:

Behaketa tauletan ikusi ditugun emaitzen arabera, 1-2.maila hauetan hiru talde ezberdin behatu ditugu: **Lehenengo nesken taldea** izkina batean aurkitzen da, jolastokiaren eremu txiki bat okupatzen duelarik. Espazio horretan, lasai hitz egiten daude eta ez dira beste sexu, adin, arraza edota irakasleekin harremanetan. Hori horrela, berdinen arteko harreman bat daukate eta euskaraz komunikatzen dira beraien artean. Honen aurrean, irakaslearen jarrera guztiz pasiboa dela ikus genezake. Hitz egiten daudenez, ahots tonu nahiz mugikortasun ertaina dutela ikusi dugu; espazioan zehar ez baitira asko mugitzen.

Bigarren nesken taldeari erreferentzia egiten badiogu, aurreko nesken taldea bezala, izkina batean eta jolastokiaren espazio urria okupatzen dutela ikus dezakegu. Hauek, aldiz, jarrera lasai bat adieraziz, mimika bezalako bestelako jolasetara jolasten dute. Honako nesken talde hau ere, ez da ez sexu, ez adin, ez arraza, ezta irakasleekin komunikatzen ere. Aurreko taldea bezala, euskaraz mintzatzen dira eta egoera honetan ere, irakasleek duten jarrera guztiz pasiboa dela esan dezakegu. Jolasean ari direnez, erabiltzen duten ahots tonua ertaina da, mugikortasuna, aldiz, tartekoa.

Hirugarren eta maila hauetako **azken taldeari** dagokionez, talde misto bat behatu dugu, non jolastoki guztian zehar jolasten ari diren eta okupazioaren tamaina erdia okupatzen duten. Hauek, nahiko modu geldidun gorrean bada ere, harrapaketa jolasetan jolasten dute. Talde mistoa izanik, sexuen arteko harremana ematen da, baina ez adin ezberdinekoen, arrazen eta irakasleen artean. Mutil-nesken arteko harremana, harroputza denez, irakasleen papera behatzailea da. Beraien artean euskaraz hitz egiten dute ahots tonu ertaina izanik. Amaitzeko, harrapaketa jolasean ari direnez, beraien mugikortasuna erabat aktiboa dela behatzeko beta izan dugu.

2. ATZEKO JOLASTOKIA: 3. MAILA

ESPAZIOAREN DISEINUA:

Jolastoki honek ez dauka inolako futbol zelai ezta saski baloi zelarik ere, baina beste hainbat ekintza egiteko lekua eskaintzen du jolastoki honek. Nahiz eta ez eduki zelairik, espazio oso zabala da eta 3. mailakoak bakarrik ibiltzen dira hemen. Jolas parke txiki bat dugu hemen eta alboetan hainbat eserleku ezberdin. Horretaz gain hainbat zuhaitz eta landare ditugu, jolastokiari bizia ematen diotenak.

ESPAZIOAREN ERABILERA NEURTUA, NESKA MUTIL HARREMANAK eta IKASLEEN JARRERAK EZAGUTZEA:

Baloi eguna:

3. maila espazioaren erabilerari dagokionez, ohartu gara ez dela sexuaren arabera banatzen baizik eta jolasaren arabera eta lagunaren arabera. Behaketa denboran ohartu gara hemen 2 talde ezberdin ditugula eta gu egon garen denboran bi jolas ezberdin “bombastic” eta “brillet”burutu dituztela.

Esan bezala 2 taldeak mixtoak dira, **lehenengo taldeak** brillet-en jolasten du eta eremuaren erdialdean kokatzen dira okupazio maila oso handia ez delarik. Material ezberdinaz baliotzen dira adibidez klera eremua zehazteko erabiltzen dute. Jolas orduan, beraien jarrera ez da agresiboa baina bai geldigorra. 3. mailakoak soilik izanik ez dira beste adinekoekin nahasten, baina talde hau adibidez irakaslearekin harremantzen dela ikusi dugu. Hala ere, etorkinekin nahasten ez direla behatzeko beta izan dugu. Neska mutilen jarrerari dagokionez, mutilen partetik harroputza dela ikusi dugu, uste dugu heldu bat ondoan egoteak beraien zerbait erakusteko behar horregatik sortua dela eta horretarako brilleta bezalako jolas batez baliatzea dira beraien indarra erakusteko asmoz, aprobazioaren bila dabilatzela esan genezake. Irakaslearen jarrera parte hartzailea izan arren, ez du ezer egiten. Euskaraz dihardute une oro eta tonu altua erabiltzen dute.

2. taldeak “bombastic” jolasera jolasten du eta jolastoki osoan zehar mugitzen dira, beraiantzat, eremu handi bat hartuz. Hauek ere nahiko geldigorrak dira, beste taldea baino gehiago, batzuetan, neska mutilen artean agresibitate helduz. Honek, gerora hainbat arazo ekar ditzakeela ikusi dugu, baina ala eta guztiz ere, zaintzale edo irakaslearen papera pasiboa izaten jarraitzen du eta ikastetxetik bertatik ere ez dago arazoa konpontzeko inizatibarik. Hauek espainolez soilik hitz egiten dute. Esan bezala irakaslearen papera pasiboa da eta batzuetan ohartu arren, ez dute ezer egiten ekiditeko. Hori dela eta, erreproduzitzen doan arazo bat dela esan genezake. Ahots tonua beraien arten altua izan arren, ez da errespetuzkoa. Mugikortasunari dagokionez guztiz aktiboak dira.

Baloirik gabeko egunak:

3. mailako baloirik gabeko egunari dagokionez, 3 talde bereizi ditugu. Soilik mutilez osaturiko talde bat dago eta beste bi taldeak soilik neskez osaturikoa. Beraz, talde hauekin soilik argi gelditzen da, sexuen arabera bereizteko joera. 3 talde hauetariko bakoitzak espazioaren erabileran okupatzen duen tokiari begiratu gero, mutilek okupatzen dute espazioaren zatirik handiena eta nesken bi taldeak espazioaren zati txikiak erabiltzen dituzte. Gainera, mutilak eremuaren erdigunean kokatzen dira eta neskak berriz, izkinetan. Honekin, garbi ikusten da nork daukan espazio honen boterea, hau da, mutilek.

Behaketa egun honetan materialik erabiltzeko aukera ez dutenez, espazio honetako talde bat bera ere ez da ari materialarekin jolasten. Mutilez osaturiko taldea harrapaketa jolasten ari da. Neskez osaturiko talde bat dantzan dago eta beste taldea, hitz egiten lasai-lasai lurrean eserita. Jolas honekin ere ikusten dugu sexuen artean jolas ezberdinetarako joera dagoela. Hau da, mutilen kasuan, jolas mugikorragoak aukeratzen dituzte, espazioaren erabilera

handiagoa egiten dutelarik. Neska hauen artean bi joera ikusten ditugu. Izan ere, dantzan ari den taldea jolas oso mugikorra egiten ari da, baina hitz egiten dagoena, lasai-lasai dago. Gainera, aipatzekoa da, dantzan ari den neska taldearen jolasa oso aktiboa izan arren, espazioaren zati txikitxo bat besterik ez dutela hartzen. Honekin ikusi dugu, gehienetan gertatzen den bezala, mutilek jarrera geldigorra dutela eta neskak berriz, lasaia, nahiz eta maila honetako neska talde batean (dantzan ari direnengan) jarrera geldigorra ikusi. Talde harremanei erreparatuz gero, argi ikusten da, elkarren artean harremantzeko joerarik ez dutela. Mutilez osaturiko taldea ez da inorekin harremantzen; ez neskekin, ez adin ezberdinetako jendearekin (ez baitaude bertan) eta ezta irakasleekin ere. Dantzan ari diren neskak ere berdina egiten dute. Aldaera txiki bat hitz egiten dauden neskez osaturiko taldean ikusten dugu. Hauek, irakasleekin harremantzen dira. Irakasleak, jolastokian zehar bueltaka ari dira eta beraien albotik igarotzen diren bakoitzean, ikasleen irakasleengana joateko joera dute. Honekin ikus dezakegu neskak irakasleekin harremantzeko joera handiagoa dutela.

Aniztasunaren trataerari dagokionez, 3 talde hauetan etorkinik ba ote dagoen behatu dugu. Harrapaketan jolasean ari diren mutilen kasuan ez dago etorkina den haurrik eta dantzan ari diren nesken taldean ere ez. Hitz egiten ari diren nesken taldean ordea, etorkina den neska bat dago. Haur hau, jolastokian jolasten ari den neska koadrilan oso integratua dagoela nabari da, ondo konpontzen direla ikusten baita. Neska eta mutilen arteko harremana nolakoa den ere begiratu dugu; ea berdinen artekoa, biolentoa, harroputza edo deserrosoa den hain zuzen ere. Esan beharra dugu, dimentsio honetan, denen jarrera berdinen artekoa dela, hau da, oso egokia. Aurretik aipatu dugu elkarren artean harremantzeko joerarik ez dutela, baina behatzen egon garen momentuan ikusi dugu harrapaketan jolasten ari diren mutilak dantzan dauden edo hitzen egiten ari diren neskengana hurbiltzerakoan, hauek beraiei harrapatu ez izateko oztopo bezala erabiltzen dituztela. Kasu honetan, beraien artean duten harremana berdinen artekoa dela ikusi dugu, ondo konpontzen dira beraien artean eta errespetuz jokatzeko dute.

Azkenik, ahots tonuari eta mugikortasunari erreparatu diogu. Ahots tonuari dagokionez, 3 taldeen artean ezberdintasunak ikusi ditugu. Mutilez osaturiko taldearen ahots tonua altua da, oso altu ari dira hizketan eta nabari da, orokorrean, altu hitz egiteko joera dutela. Dantzan ari diren nesken ahots tonua berriz, ertaina da. Momentu batzuetan altu hitz egiten dute, gauza zehatz batzuk esateko eta dantzan ari den talde guztiak entzuteko, baina orokorrean, ez dute altu hitz egiten. Azkenik, hitz egiten ari den neska taldearen ahots tonua baxua da. Kuxkuxeoan ari dira eta beraz, baxu hitz egiteko joera dute. Gainera, elkarren artean gauza batzuk belarrira esaten dira, inork ez entzuteko. Uste dugu, ahots tonuak asko esaten duela genero bakoitzaren inguruan eta ez da kasualitatea mutilek ahots tonu altua erabiltzea. Mugikortasunari dagokionez, hemen ere, ezberdintasunak nabari dira. Mutilez osaturiko taldearen mugikortasuna oso aktiboa da, denbora guztian alde batetik bestera ari dira jolasean, espazio osoa erabiliz eta geldirik egon gabe. Dantzan dagoen neska taldearen mugikortasuna tartekoa bezala definitu dugu. Izan ere, momentu batzuetan oso aktibo daude, baina beste batzuetan geldirik egoten dira hitz egiten. Honek, gainera, mutilek ez bezala, ez dute espazio guztia erabiltzen. Amaitzeko, hitz egiten dagoen neska taldearen mugikortasuna geldoa bezala definitu dugu, izan ere, lurtean daude eserita eta soilik irakasleekin hitz egiteko mugitzen dira.

3. GOIKO JOLASTOKIA: 5/ 6 MAILA

ESPAZIOAREN DISEINUA:

5 eta 6.mailako ikasleek erabiltzen duten jolastokiak, tamaina ezberdineko hiru futbol zelai ditu; bi txiki eta handiago bat aurkitzen direlarik. Jolastokian jolas jakin batzuei zuzenduriko espazioak egon arren, aipatu beharra dago ez dagoela jolas jakin batzuetara bideraturiko materialik.

ESPAZIOAREN ERABILERA NEURTUA, NESKA MUTIL HARREMANAK eta IKASLEEN JARRERAK EZAGUTZEA

Baloi egunak:

Maila hauetako bi talde ezberdin behatu ditugu. Lehenengo taldea, neskez osaturiko ikasle talde bat da eta eremuaren izkina batean kokatzen direnez, espazioaren zati txiki bat okupatzen dutela esan genezake. Jolasei dagokienez, jolas sinbolikoetara jolasten dute, ile-apaindegintzan jolasten dute. Jarrera lasaia adierazten dute eta ez dute inolako harremanik adierazten sexu, adin, arraza eta irakasle ezberdinekin. Hori horrela, berdinen arteko harreman bat aurrera eramaten dute, beti ere euskaraz hitz eginez. Beraien jarrera lasaia izanik, irakasleek duten jarrera, pasiboa da. Erabiltzen duten ahots tonua ere baxua da eta ile apaindegintza bezalako jolasetara jolasten ari direnez, mugikortasun geldoa adierazten dute.

Bigarren taldeari dagokionez, mutilez osaturiko ikasle talde batek osatzen du eta jolastokian zehar mugitzen direnez, espazioaren okupazio ertaina egiten dute. Hauek ere, jolas sinbolikoetara jolasten dute; polizia eta lapurretara hain zuzen ere. Hori dela eta, eraien jarrera jolas honen aurrean agresiboa da. Beraz, harreman biolentoa adierazten dutela aztertu dugu. Hori horrela izanik, irakasleen jarrera ikasle hauekiko behatzailea da. Bestalde, talde harremanetan zentratzen bagara, ez dute inolako harremanik izaten adin, sexu, arraza eta irakasle ezberdinekoekin. Ahots tonua altua da eta mugikortasun aktiboa adierazten dute.

Baloirik gabeko eguna:

5 eta 6.mailako hiru ikasle talde behatu ditugu. Lehenengo ikasle taldea, mutilez osaturiko taldea da eta zelaiaren erdian kokatzen dira, espazioaren zati handia okupatuz. Futbolean jolasten dutenez, baloia erabiltzen dute eta jarrera agresiboa adierazten dute. Harremanei dagokienez, ez dute sexu, adin, arraza eta irakasleen arteko harremanik izaten. Gainera, harroputz jarrera adierazten dute. Horrez gain, euskaraz hitz egiten dutela behatu dugu eta irakasleek hauekiko jarrera pasiboa dutela ere. Ahots tonu altuan aritzen dira eta mugikortasun aktiboa dute futbolean jolasten ari baitira.

Bigarren taldea berriz, mistoa da; hau da, neska nahiz mutilek osatzen dute. Izkina batean jolasten dute eta hori dela eta okupazioaren tamaina txikia dute. Guzti hauek hitz egiten ari dira eta oso jarrera lasaia adierazten dute. Hori horrela izanik, sexuen artean harremantzen direla ikus dezakegu, baita arraza ezberdinen artean ere; baina ez adin eta irakasleen artean. Beraz, berdinen arteko harreman bat azaltzen dute. Euskaraz mintzatzen dira eta jarrera lasaia dutenez, irakasleek jarrera pasiboa adierazten dute beraiekiko. Jarrera lasaian eta hitz egiten ari direnez, ahots tonu baxua erabiltzen dute eta mugikortasun geldoa; izan ere, hitz egiten ari dira.

Azkeneko taldeari dagokionez, nesken talde bat aztertu dugu, non jolastokiaren izkina batean aurkitzen den eta jolastokiaren tamainaren erdia okupatzen dutela esan genezake. Saskibaloien jolasten dutenez, baloia erabiltzen dute eta jarrera geldigorra adierazten dute. Soilik neskez osaturiko taldea izanik, ez dira gainontzeko sexuekin harremantzen, ezta gainontzeko adineko, arrazekin edota irakasleekin ere. Beraz, beraien arteko harremana, berdinen artekoa da. Euskaraz hitz egiten dute eta irakasleen papera behatzailea da. Erabiltzen duten ahots tonua ertaina da eta mugikortasun aktiboa adierazten dutela ikusteko beta izan dugu.

4. ELKARRIZKETA HEZKUNTZA KOMUNITATEKO KIDE BATI

Ikastetxe honetan astero aldatzen dira jolastokiko zaintzaileak eta guztira 6 izaten dira, egunero jolastokiko eremua aldatzen dijoaz, beraz eremu guztietan ageri den mugimendu hortaz jabetzeko aukera izaten dute eta guri gehien interesatzen zaigun arloan, hots, jolastokiko hezkidetzaren inguruan. Aurretik azaldutako behaketa egiteaz gain, aste honetako zaintza hautatu zaion irakasle bati egiteko elkarrizketa bat diseinatu dugu informazio osagarria lortzeko asmoz. Honako galdera hauek egitea erabaki dugu:

1. Zertara jolasten dute hurrek?
2. Jolastorduan neskek eta mutilak batera edo banatuta ibili ohi dira? Zergatik uste duzu hori gertatzen dela?
3. Bereizketarik al dago jolasetan genero ikuspegitik? Zergatik?
4. Irakasleen artean ere ikusi al duzute bereizketarik?
5. Zer jarrera hartzen dute neskek eta mutilek taldean daudenean jolastokian?
6. Jolastokian boterea zeinen eskuetan dagoela uste duzu?
7. Egiten al duzue zerbait hau aldatzeko? Bai / zer? Ez / zegaitik?
8. Zeintzuk dira baloi jolasetan ibiltzen diren gehienak?
9. Ahotz tonu berbera erabiltzen al dute neskek eta mutilek jolasterako orduan?
10. Jolasetan parte hartzen al duzute? zer jolasetan?
11. Iraskaleok, bultzatzen al duzute denak batera jolastea?
12. Hezkidatzaren inguruko ikasgai edo programarik ba al dago ikasleentzako? eta irakasleontzat?

5. HEZITZAILEEN JARRERA EZAGUTZEKO GALDETEGIA

Elkarrizketaz gain, hezitzaileek haurrekiko eta beraien artean duten jarrera nolakoa den jakin nahian galdetegi bat ere diseinatzea erabaki dugu, lehen esan bezala esku-hartzea modu egoki batean gauzatzeko informazio osagarria lortu ahal izateko. Hona hemen galdetegiaren eredu:

1.- Adina. _____

2.- Sexua. Gizonezkoa Emakumezkoa

3.- Zeintzuk dira zure ikasketak? _____

4.- Zein da zure lanbidea?

Irakaslea Tutorea Orientatzailea
 Psikologoa Laguntzako irakaslea

5.- Hezkidetzaren inguruko formakuntzarik baduzu?

Ez Bai. Zein? _____

6.- Imajina ezazu ondorengo egoera:

Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoa den mutiko batek gelakide mutilen artean neskekin batera "aita-ama" jolas sinbolikoan jolastea proposatu du. Besteek ezezko zuzena eman diote, beraiak mutilak direla eta neskekin jolasten ez dutela esanez.

Zer egingo zenuke honen aurrean?

- Mutilen erabakia errespetatu ezer esan gabe.
- Mutilak eta neskak batera jolas daitezkeela azaldu eta beraien erabakiarekin aurrera joaten utzi.
- Mutilak eta neskak batera jolas daitezkeela azaldu eta neskekin jolastera animatu (beste joku bat proposatuz, zeu ere haiekin jolastuz...).
- Mutilak eta neskak batera jolas daitezkeela azaldu eta neskekin jolastera derrigortu.

7.- Zure eguneroko jarrerak hezkidetzailleak direla uste al duzu?

Inoiz ez Batzuetan Gehienetan Beti

8.- Noizbait ikusi duzu jarrera matxista edo sexistaren bat hezitzaileen artean?

Bai Ez

9.- Hezitzailearen batek haurren aurrean jarrera matxista edo sexistaren bat badu, zerbait esaten diozu?

Bai Ez

10.- Hezitzaileen artean ondorengo jarrera hauek zer neurritan ematen diren adierazi (0: inoiz ez dira ematen - 10: beti ematen dira):

- Neskak eta mutilak komun ezberdinetara joaten derrigortzen dira: _____
- Neskei futboleko jolastera animatzen zaie: _____
- Mutilari eta neskei batera jolastera animatzen zaie: _____
- Guztien artean jolasteko jolasak proposatzen dira: _____
- Jolas-kanta matxista baten aurrean, hurrei kantu berriak proposatzen zaizkie: _____
- Neska eta mutilak bereizita daudela ikustean, hau onartzen da eta ez da ezer egiten: _____
- Mutilari “txapeldun” deitzen zaie: _____
- Neskei “txapeldun” deitzen zaie: _____
- Mutilari “ze polit zauden” esaten zaie: _____
- Neskei “ze polit zauden” esaten zaie: _____

6. JOLASTOKIAN HEZKIDETZA BULTZATZEKO PROPOSAMENA

Gaur egungo ikastetxeetako jolastokietan oraindik ere ohikoak dira futbol-zelaian, zabuetan edo sokasaltoan jolastea. Egitura hauek, sexu-bereizketa dakartzatela uste dugu. Izan ere, haurrei egitura hauek ematen badizkiegu, beraiek, naturalki sexuka banatzeko joera hartzen dute gehienetan.

Honen aurrean, hezkidetzaren izenean, egun batzuetan baloiaz jolastea debekatzea erabakitzen ari da ikastetxe batzuetan. Gure iritziz, hau ez da irtenbidea. Uste dugu, jolastokia edo patioa gune hezitzaile moduan birpentsatzen hasi behar dugula. Hau da, arazoa ez dago espazioaren erabileran, espazioaren egituran baizik; nola dagoen jolastokiko espazioa egitura hain zuzen ere.

Helburuak zehaztu ondoren, jolastokia eraldatzerako orduan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu hezkuntza komunitate osoarekin adostea zer nolako jolastokia nahi dugun. Horretarako, komunitateko kide ezberdinen taldeak osatuko ditugu, hauek izango dira: haurrak, irakasleak, zuzendaria eta gurasoak. Hauen parte-hartzea bultzatzeko, mota ezberdinetako dinamikak egingo ditugu, hauen nahi eta beharrak jasotzeko.

Jolastokiaren erabiltzaile nagusiak, haurrak izanik, ezinbestekoa iruditzen zaigu, lehenik eta behin, beraien hitza entzutea. Horretarako, gelaz-gela asanbladak burutuko ditugu beraien proposamenak jasoz.

Asanblada hauek, ez dira saio batera soilik mugatuko, hau da, 3 asanblada egingo ditugu. Horrela, jarraikortasun bat izango dute asanbladek. Lehengo asanbladan, jolastokia eraldatzea zer iruditzen galdetuko diegu. Horretarako, galdetegi bat pasako diegu ikasleei. Honekin, behaketaz gain, informazio osagarria bilduko dugu. Horretaz gain, haurren perspektiba zabaltze aldera, beste ikastetxe batzuetako jolastokietako argazkiak eta bideoak erakutsiko dizkiegu. Bigarren asanbladan, proposamenak bilduko ditugu. Horretarako, ikasleak talde txikitik jarri eta beraiei gustatuko litzaieken jolastokia margotzea esango diegu. Ondoren, talde bakoitzak berak margotutako jolastokia azalduko die gainontzeko ikasleei. Azkenik, hirugarren asanbladan, guk geuk bilduta eramango ditugu aurretik jaso ditugun proposamenak eta denon artean adostasun batera heltzen saiatuko gara. Beti ere, ikasleei argi utziko diegu beraiek esaten dutena kontuan hartuko dugula baina, horrek ez duela esan nahi, hori burutuko dugunik. Izan ere, beraiek ikastetxeko ikasleria osoaren proportzio bat besterik ez dira, hau da, ez dute ordezkutzen ikasleen osotasuna.

Zuzendariak jolastokian duen parte-hartzea txikia izan arren, garrantzitsua iruditzen zaigu berarekin bilera bat egitea. Azken batean, bera da ikastetxeko erabaki garrantzitsuenak hartzen dituen pertsona eta beraz, hasierako unetik garrantzitsua da gure planteamendurekin bat datorren ala ez jakitea. Behin bere adostasuna jasota, gure esku-hartzea aurrera eramateko dugun aurrekontua zehaztea ezinbestekoa da. Bilera hau hori zehazteko izango da.

Ondoren, irakasleengana joko dugu. Irakasleen ikuspuntua jasotzea ere ezinbestekoa da horrelako proiektu batean. Horrela, hurrekin bezala, beraiekin ere 3 saio burutuko ditugu. Lehenengo saioan, burututako behaketan jasotako informazioa helaraziko diegu, jaso ditugun ondorioak azalduz. Ondoren, ariketa txiki bat egingo dugu, jolastokiak zertarako izan behar diren zehaztuz. Horretarako, “jolastokiak zein helburu bete behar ditu?” bezalako galderak egingo dizkiegu. Ariketa honekin amaitzean, irtendako ideiekin, helburu komun batzuk zehaztuko ditugu. Bigarren saioan, irteerak egingo ditugu Euskal Herriko ikastetxe ezberdinetako jolastokiak ikustera. Kontuan hartuko dugu, ikastetxe hauetako jolastokiak guk aurretik zehaztutako filosofiarekin bat datozela eta guk ezarritako ideia berdinak edo antzerakoan bultzatzen dituztela. Irteerak egun osokoak izango dira eta bertako langile batek gidaturikoak. Honek, bertako hezitzaile ezberdinekin hitz egiteko aukera ahalbidetuko digu eta hala, sakonago ezagutzeko aukera izango dugu. Horretarako, irakasleak talde txikitan bilduko gara eta hala, jolastoki ezberdinak ikusteko aukera izango dugu. Azkenengo saiorako, ikastetxera bakoitzera joan den irakasle taldeak aurkezpen txo bat prestatu beharko du, bertatik zein ideia gustatu zaion eta beraien eskolan egingarria iruditzen zaienak azpimarratuz. Hala, azkenengo saioan, lehenengo, talde bakoitzak bere irteerari buruz prestatutako aurkezpena azalduko du. Ondoren, talde txikitan ideia egingarrien zerrenda burutuko dugu, bakoitzak zein helburu burutuko duen zehaztuz. Azkenik, denak elkartuta plenario bat burutuko dugu dena adosteko.

Azkenik, proposamen honen barne hezkuntza komunitateko eragile guztiak hartzeko, gurasoekin ere iritziak eta informazioa partekatu beharko dugu. Denok dakigu gaur egun familia gehienetan haurren gehiegizko gainbabesa ematen dela. Haurrak biktimizatu egiten ditugu, askotan gehiegi babestutako burbuila batean sartuz. Modu honetan, haurren askatasuna, eskubideak hartzeko gaitasuna, autonomia... mugatzen ari gara. Finean, haurren garapena oztopatzen dugu gehiegizko babes horrekin. Hau kontuan harturik, herrian zehar ikus daitezkeen jolastokiak haurrak babes orotatik babesteko eginak daude: gomazko lurrarekin, hesiekin inguratuta... . Gurasoekin beraz, haurrak autonomia eta hezkidetzaren printzipioetan nola hezi daitezkeen landu nahi dugu eta horretarako Tonucciren zein bestelako hezkidetzaren teoriak azalduko dizkiegu bideoak, eredu ezberdinak eta abar erakutsiz. Gurasoek oinarrizko formakuntza hori lortu ondoren, jolastokiaren diseinuaren inguruan iritzi elaboratu eta konplexu batzuk eman ahal izango dute. Proposamen parte-hartzaile honi jarraiki, guraso guztiei beraien beraien seme-alabak nolako eremu eta espazioetan heztea nahi duten ere galdetuko diegu, eta baita beraien ustetan jolastoki hezkidetzazile bat nolakoa izango litzatekeen ere.

Prozesu parte-hartzaile honi amaiera emateko, orain arteko talde guztiak biltzen duen asanblada bat deituko dugu, hau da, bertan haurrak, irakasleak, zuzendaria eta gurasoak bilduko ditugu. Bertan, aurretik zehaztu ditugun helburuak azalduko ditugu. Honekin, ezertan hasi aurretik, argi utzi nahi dugu zein den jolastokiari jarri behar diogun norabidea, zertara goazen. Kontutan hartuko dugu, baita ere, jolastoki hau adin guztietarako izango dela. Hau

da, orain arte ez bezala, ikasle guztiek jolastokiko espazio guztia erabili ahal izango dutela, adin ezberdineko pertsonen arteko harremana bultzatuz. Ondoren, guk geuk, orain arte burututako saio/asanblada ezberdinetan jaso dugun informazioa helaraziko dizkiegu. Azkenik, informazio honetan oinarriturik eta aurrekontuaren barruan zehaztu ditugun 5 proposamenak aurkeztuko ditugu. Behin hauek aurkeztuta, denon artean adostasun batera heldu beharko gara, bost horietako bat aukeratuz. Adostasun batera heltzea lortzen ez badugu, bozka bidez aukeratuko dugu. Bozketa honetan, pertsona bakoitzak bozka bat izango du (bai haur, bai guraso/tutore, irakasle eta zuzendariak). Behin denon artean sortuko dugun jolastokia adostua, prozesu hau amaitutzat ematen dugu eta orain, denon artean nola sortuko dugun pentsatzen hasteko momentua dator.

JOLASTOKI BERRIARI EZARRI DIZKIOGUN HELBURUAK

Proposamen hauekin lortu nahi ditugun helburuak anitzak dira, baina nagusia eskolako jolastokietan neska eta mutilen genero rolekin amaitzea da. Horretarako, lehenago aipatu bezala, ezinbestekotzat ikusten dugu jolastokiko espazio banaketan ondorio eta jarrera jakin batzuk azaldu ahal izateko hezkidetzak lanketa eskola barnetik egitea (irakasle, curriculum, eduki, arau, jarreretan eta abar).

Aldi berean, bereizketa sexista horrekin amaitu ahal izateko jolastokian mutilek duten botere eta protagonismoarekin amaitu beharko da. Futbol zelaiak jolastokien espazio ia osoa hartzen dute, modu honetan mutilak direlarik jolastokiaren jabe. Mutilak jolastokiko espaziorik zabalena hartzen dutela kontuan harturik, espazio banaketaren kudeaketa on bat egitea lortu nahi dugu proposamen honekin. Hau da, jolastokiaren espazio ia guztia futbolari edota saskibaloari eman beharrean (mutilen protagonismoari azken finean) bestelako jolas, eremu eta aukera anitzak dituen jolastoki bat diseinatzea eta sortzea izango da gure helburua.

Jolas ez sexistak sustatzea ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu jolastoki hezkidetzaille bat eraikitzerako orduan. Eskolako jolastoki berria futbola (mutilena) eta soka-saltoa (neskena) dikotomiatik ateratzea nahi dugu haurrek bereizketarik gabeko jolas eta eremu anitzak eskuragarri izan ditzaten. Modu honetan, aurretik esan bezala, mutilen betiko protagonismoarekin amaitu eta nesken ahalduntzea jolastokian islatzea nahi dugu. Honekin batera, haurren arteko harremanak aniztasunean oinarritzea nahi dugu, horretarako gure helburu garrantzitsuena izango da genero, kultur eta adin arteko harremanak sustatzea.

Esku-hartze honekin lortu nahi dugun beste helburu esanguratsu bat da haurrek jolasteko garaian materialarekiko duten dependentsia hein handi batean murriztea. Gaur egun, ikusgarria da haurrek materialik gabe jolasteko eta ondo pasatzeko aurkitzen dituzten zailtasunak anitzak direla. Adibide bat jartzearen, mutil gehienei jolastokian baloia kendu eta ez dute jakingo zertan jolastu. Beraz, beharrezkoa ikusten dugu baliabide materialekiko independentzia edo autonomia lantzea. Modu honetan, haurrek material espezifikorik gabeko jolas berriak asmatu, eraiki eta pentsamendua garatu ahal izatea nahi dugu.

Azkenik, ezinbestekoa da proposamen hau modu demokratiko batean aurrera eramateko, hezkuntza komunitatean parte hartzen duten pertsona edo kolektibo guztien iritzia kontuan hartzea jolastoki berria diseinatzerako orduan. Ez dugu nahi jolastokia teknikari batek diseinatzea baizik eta hezkuntza komunitate osoak eraikitzea. Gure esku-hartzearen erdigunea haurrak izatea nahi dugu, haurrei hitza eman nahi diegu beraien erabakitze eskubidea eta autonomia garatu ahal izateko, beti ere inguruko pertsonen ikuspegia ere kontuan hartuz.

JOLASTOKI BERRIAREN DESKRIBAPENA

Behin aurrera eramango den jolastokiaren diseinua zein izango den erabakita, honen deskribapenarekin hasiko gara. Jolastokiak hiru eremu izango dituela erabaki da, eremu bakoitzean haurren alderdi jakin batzuk landuko dira, baina momentu oro naturako elementuekin kontaktuan egonik. Honela, eremu bakoitzari izen bat eta ezaugarri jakin batzuk esleitu dizkiegu.

1. URA

Jolastokiaren eremu honek intentsitate ezberdineko mugitzeko ekintzak edo jolasak bateratuko ditu. Azalera ezberdineko materialak eta testurak erabiliko dira, halaber, defintu gabeko elementuak ere egongo dira, enborrak esaterako. Ura eta hondarra bezalako elementuen presentzia ere ezinbestekoa izango da, haurren sormena eta esperimendazioa sustatzeko. Etxetxo txikiak, kobazuloak, tunelak, landaredia edo intimitatea eta ezkutatzeko lekuak dituzten eremuak ere egongo dira (Ciocchetto, 2016).



Honetaz gain, igotzeko, jaisteko eta salto egiteko elementuak ere jarriko ditugu, izan ere, haurrentzat arriskua sentitzea eta abenturak bizitzea beharrezkoa dela uste dugu. Hau kontuan harturik, eremu aldapatsuak eta oztopoz beterikoak ere egongo dira. Hurrengo argazkietan ikus daitezkeen bezala.



2. SUA

Adriana Ciocolettok proposatzen duen bezala, babestuago dauden eremuak jolas sinbolikoetarako erabiliko dira. Hori dela eta eremu hau sukaldaritza, eraikuntza, antzezpenak egin edota erlaxatzeko espazioa izango da beti ere, lehen esan bezala, momentu oro naturarekin kontaktuan egonik. Komenigarria da natura ahalik eta jolastokiko elementu gehienetan barneratzea; ez landaredian bakarrik baizik eta jolasak edota altzariak material birziklatuetatik eraikitzeko orduan ere.



3. LURRA

“Lurra” deituriko eremu honetan jolas ezberdinetan aritzeko parada izango dugu. Gainera, espazio honek, ikasgelan edo ikasgelatik kanpo ere burutu nahi diren beste hainbat ekintza egiteko balio izango digu. Izan ere, bertako jolasak lurrean egongo dira margotuak, beraz, ez digute oztoporik jarriko. Bertan, historikoki jolas tradizionalak izan direnak izango ditugu, baina jolas horietariko asko dimentsio erraldoian aurkituko ditugu.

Jolas tradizionalen inguruan hitz egiterako orduan, kontuan izan behar dugu, orain urte askotatik bizirauten duten jolasak direla, belaunaldiz belaunaldi biziraun duten jolasak hain zuzen ere. Jolas hauek, gure aiton-amonek jaso dituzte eta hauek beraien seme-alabei (ondorengo belaunaldiari) transmititu dizkiete. Azken hauek, hurrengo belaunaldiari irakatsi dizkiete eta horrela belaunaldiz belaunaldi transmititu izan dira aldaketa txiki batzuk izan dituzten arren. Jolas hauek ez daude inon idatziak eta ezin dira inon erosi (agian elementuren bat), baina urtez urte beraien esentzia mantendu dute. Jolas hauek momentu edo urteko eptapa ezberdinetan agertu izan ohi dira, noizean behin berriro desagertzen direlarik ondoren berriro agertuz.

Jolasak transmititzearen kultura hau ez da ofiziala, izan ere, gehienetan ahoz-ahoko transmisioa izan da. Gainera, kontuan izan behar dugu etengabeko eraldaketan dagoela eta hauen egileak momentuko belaunaldiak izanen direla. Hezkuntza komunitatearekin burutu

dugun prozesu parte-hartzailean ikusi dugu jolas hauek bizirik jarraitzeak ezinbestekoa dela, izan ere, hauen bidez haurrei ezaugarriak, baloreak, bizitzeko moduak, tradizioak... transmititu diezazkiegu. Gainera, jolas berdinek toki eta denbora ezberdinetan izan dituzten eta izan ditzaketen aldaera ezberdinak ikasi ditzazkegu.

Aipatu nahi dugu gainera, jolas hauek ez-materialak direla eta alde horretatik, balore hau ikastea ere oso garrantzitsua ikusten dugula, jolastearen plazer hutsa hain zuzen ere. Honekin, gaur egun beharrezkoa den hezkuntza ez kontsumistari bide ematen diogu.

“Lurra” izeneko eremu honetan egongo diren jolas ezberdinak honako hauek izan daitezke:



7. EBALUAZIOA

Lan honi amaiera emateko, aurrera eramandako proposamenaren ebaluazio bat egin beharko dugu, egindako esku-hartzea gure helburuak betetzeko baliagarria izan den ala ez ikusteko. Geure helburuak oroituz, esku-hartze honen helburu nagusia jolastokian espazioaren banaketa orekatu eta hezkidetzaille bat lortzea zen. Mutilen jolastokiko monopolizazioarekin amaitzea eta nesken ahalduntzea bideratzea nahi genuen, horretarako jolastokiko antolaketa goitik behera aldatuz.

Hau kontuan harturik, eta jolastokian egindako aldaketa erradikal hori analizatuz, neska eta mutilen arteko harremanak eta espazioan kokatzeko modua hein batean aldatu direla esan beharra dago. Orain ez daude beti mutilak jolastokiaren erdian baizik eta neskek ere beraien lekua okupatzen dute, beraz espazioaren banaketa orekatu egin dela esan daiteke. Gainera, haurrak mutil eta neskek batera jolastu dezaketela ohartu dira, eta genero arteko harreman hori jolastokian normalizatzen hasi da. Hala ere, oraindik ere neskak eta mutilak jolas jakin batzuetara jotzen dute maiz, mutilak esaterako, ur eremuan gehiago jolasten dira alturan dauden elementuetara igoz eta era guztietako saltoak eginez modu aktibo batean. Neskak bitartean, sukaldean eta lurreko eremuan jolastea gustuko dute, honek hauen jarrera pasiboagoa islatzen duelarik.

Mutil eta nesken arteko bereizketak oraindik ere indarrean diharduen arren, murriztu egin da, eta jolasak lehen aipatzen genuen dikotomia sexistatik atera dira. Halaber, haurrek materialekiko zuten dependenziarekin hein handi batean amaitu dugu, gustura ibiltzen baitira baloirik eta bestelako baliabiderik gabe.

Bestetik, adinen eta kultur arteko harremana hobetzea lortu dugula ikusi dugu. Izan ere, adin ezberdinetakoak izan arren, guztientzat jolastoki bera eta baliabide berdinak egoteak euren arteko harremanak eta negoziazioak egotea suposatu du, non, zenbaitetan ere adin ezberdinen artean harreman estuak izatera ere heldu diren. Kultur harremanei dagokienez, haur guztiak batera jolasteak elkarren arteko errespetua areagotzea ekarri du, oraindik ere haurrek balio eta aurreiritzi arrazistak izaten jarraitzen duten arren.

Azkenik, haurren autonomiak ere bilakaera on bat izan du, leku zabal, ireki eta askeak izateak horretan lagundu baitu. Haurrak gustura dabilta jolastoki berriarekin, beraien eskaerak bete direla ikusi baitute.

Finkatutako helburuak bete diren ala ez analizatu ondoren, egindako jolastokiaren berregituraketan hobekuntzarik egitea beharrezkoa den ala ez pentsatu dugu. Gure ustetan, haurren artean genero rolak oraindik ere ikusgarriak diren arren, aurrera pausoak egin ditugu. Eta esku-hartzea planteatu genuen momentutik argi geneukan jolastokia eraldatuz soilik ez genuela sexismo eta matxismoaren erreproduzioarekin amaituko, beste eragile batzuk ere

beharrezkoak baitira hori betetzeko. Beraz, gure azken erabakia, jolastokia dagoen horretan uztea izan da.

8. BIBLIOGRAFIA

- Bizkaiko Urtxitnxa Eskola (2015). *Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feminista batetik*. Arrasate: Txatxilipurdi Elkarte.
- Bilbao, B. (2006). HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA GENERO IKUSPEGITIK: EMAKUMEEN ROLAK TESTULIBURUETAKO IKONOGRAFIAN. *EL DERECHO A LA EDUCACIÓN EN*, 87.
-
- TIERRA EN LAS MANOS (2016). *¿Cómo debería ser el patio de la escuela?*. <http://www.tierraenlasmanos.com/reformar-patio-escuela-en-espacio-educativo/>
Begiratua: 19/10/2017
- EL PAÍS (2016). *Patios coeducativos: abrir la escuela para transformar la ciudad*. https://elpais.com/elpais/2016/06/23/seres_urbanos/1466661600_146666.html
Begiratua: 19/10/2017
- HACEMOS PATIOS (2016). *Proyecto colaborativo y de co-educación en el patio de la escuela Montserrat*. <http://fempatis.blogspot.com.es/> Begiratua: 19/10/2017